

Herri Berri





► Herri berri

Bazen behin, Herri Gorri deituriko herria. Herri Gorriko biztanle guztiek, sudur gorria zuten. Bertan bizitzea nahi zuen edonork sudur gorria izan behar zuen, derrigorrez. Herri Gorrin, triste bizi ziren.




Herri Gorri ondoan, bazen beste herri bat. Herri Laranja deitzen zen, eta bertako laguntxoek belarri handiak eta laranjak zituzten. Herri Laranjan ezin zen belarri laranjak ez zituen inor sartu, eta, hemen ere, jendea triste bizi zen.



Pixka bat urrutiago, jendea Herri Horian bizi zen. Zapata horiak jantzi behar zituzten hemen bizi ahal izateko, eta, Herri Horian ere, oso triste bizi ziren



Handik oso gertu, Herri Berdea zegoen, eta bertan, jende guztiak esku berdeak zituen. Herri Berdean ezin zen esku berderik ez zuen inor sartu; han ere, jendea triste-triste bizi zen.



Mendian dagoen Herri Urdinean, berriz, pertsona guztiek ile urdina zuten. Hemen, jendea, ez zen pozik bizi.



Azkenik, errepide bukaeran, Herri Morea zegoen. Herri Morean, oso triste bizi ziren, bertan, aurpegi morea zeukan jendea sartzen zelako bakarrik.

Herri Morean triste bizitzeaz aspertu egin ziren, eta, jai bat egitea erabaki zuten.



Jai honetara herri guztietako jendea gonbidatu zuten, Herri Gorri, Herri Hori, Herri Berde, Herri Laranja eta Herri Urdineko jendea! Herri Morean ospatutako jaietan hain ondo pasatu zuten denek, egun horretatik aurrera herri guztietan edozein pertsona sartzeko eta bizitzeko aukera izan zutela, guztiak nahastuta, alaitasunez eta poz-
pozik.